



ikastolak

bik-in bat in

IBAIALDE IKASTOLA
LODOSA



Ibaialde Ikastolako ikasle taldea, eraikuntzen QR-ak jarri genituen egunean.

Ibaialde ikastolako ikasleok Lodosako zenbait eraikuntza arkitektoniko berezi aukeratu eta hauen deskribapen idatzia eta ahozkoa prestatu dugu. Deskribapen hau hizkuntza ezberdinetan jarri ondoren, QR formatura bihurtu eta publiko osoari eskaini diogu. Egitasmo honen helburua Nafarroako ondarea ezagutu eta baloratzen hastea da. Gainera proiektu honek Vianako Printzea erakundearen babesa jaso du. Honen harira monumentu desberdinen arduradunekin hitz egiteko aukera izan dugu eta hauek dira beraiekin egin ditugun elkarriketak.

IÑIGO UGALDE Iñigo Ugalde bilbotarra da eta San Miguel elizako erretoarea. Duela urte bete izendatu zuten postu horretarako.

Borondatezko lana da ala soldata bat jasotzen duzu? Bai, 800 euro jasotzen ditut.

Eliza zein urtetan eraiki zen? XVI. mendean.

Horrenbeste urteren poderioz aldaketaren bat izan al du? Eraikuntza lanak XVIII. mendera arte luzatu ziren.

Zeintzu dira zure ustez elementurik aipagarrienak? Oker ez banaiz

Ibaialdeko ikasleak, gure ondarea QR-tuz

LODOSAKO ERAIKUNTZA HISTORIKO BATZUK AUKERATU ETA EUREN INFORMAZIOA QR KODE BIDEZ ESKAINI DUGU

📷 *Testua eta argazkia Ibaialde Ikastola*

gurutziatzatuaren eta San Estebanen tailak dira zaharrenak, XVI. mendekoak. Aipagarriak dira ere erre-
taulan dauden San Miguel, San Eme-
terio eta San Celedonioren tailak.

Gaur egun nor da jabea? Aintzi-
nean Lodosako kristauena.

Gastuak nork hartzen ditu bere gain? Gastu guztiak eliztarren ekar-
penei esker ordaintzen dira. Aste
honetan bertan kontu guztiak era-
kutsi dizkiegu.

*Zer iruditu zaizu Ibaialde ikastola-
ko ikasleen lana?* Orijinala eta atse-
gina.

Zein ekarpen ekar diezaiokela uste

*duzu gure lanak horrelako eraikun-
tzei?* Herriaren sustraiekiko gertu-
tasuna.

J.A. SAEZ LIZANZU Jose Antonio Saez Lizanzu armarridun etxe baten jabea da. Zaragozan bizi arren bera Lodosarra da eta esaten duenez Lodosar bezala harro sentitzen da, bere herriko etxerik zaharrena ez duelako desagertzen utzi.

Etxea zein urtetan eraiki zen? Del Aire kalera aldean dagoen etxea XVI. mendekoa da eta La Plazuelakoa XVII. mendearen bukaerakoa.

Horrenbeste urteren poderioz

aldaketaren bat izan al du? Etxea erortzeaz zegoen eta barruan zegoe-
na lapurtu egin zuen jendeak. Ia guz-
tia eraman zuten, ateak, markoak,
eskailerak, deus ere ez zegoen...
Adreilu zatiak besterik ez zeuden. Ia
dena biltzea lortu nuenean berreai-
kitzeari ekin nion 2009. urtean. Urte
bat pasa nuen lan horretan, etxeak
solairuko 700 m² baititu.

Gaur egun nor da jabea? Ni eta nire
andrea. Hala ere batzuetan uda-
letxeari uzten diogu iharduera des-
berdinak antola ditzan.

Norbait bizi al da? Ni neu, Lodosan
nagoen asteburuetan.

*Zeintzuk dira zure ustez elemen-
turik aipagarrienak?* La Plazuela
aldeko fatxadak Vianako Printzea-
ren babesa du. Etxearen alderik ikus-
garriena XVIII. mendeko upategiak
dira. Gainera eskailera erraldoi bat
ere badugu. Arkitektoak etxeko
sarreraren banaketa berezi bat egin
zuen, non 2 pisu aurki ditzakegun.
Etxeko egongela nagusia ere aipaga-
rria dela uste dut.

Gastuak nork hartzen ditu bere gain, zuk ala laguntzaren bat jasotzen duzu? Gastu guztiak gure gain gelditzen dira, sekula ere ez dugu laguntzarik eskatu izan.

*Zer suposatzen dizu balio histori-
koa duen etxe baten jabe izateak?* Nik ez dut balore historikoa duena-
ren sentsaziorik. Bai, Lodosako etxe
historiko bat zutik mantentzea lor-
tu dugula.

Zein ekarpen eman diezaiokela uste duzu gure lanak horrelako eraikuntzei? Baloratuak eta errespetatuak izan daitezten. Etxe hau erabilgarri izatea gustatuko litzaidake eta horretarako edozein elkartearen eskueran dago.

Interesagarria den beste zerbait nahiko zeniguke aipatu? Etxe barruan dagoen guztia nire bildumako zati bat da. Etxea katalizatzaile bihurtzea da nire helburua, batez ere Lodosako herriaren ondarea maite duen edonorentzat, horrela guztion gozamenerako leku bihurtzen delarik.

MORENTIN AHIZPAK Pili eta Juani Morentin Duarte San Gregorio ermita zaindu eta garbitzeaz arduratzen diren bi ahizpa dira.

Orain dela zenbat hasi zinetela lan horretan? Gure aitona-amonek egiten zutenetik gaur arte.

Borondatezko lana da ala soldata bat jasotzen duzue? Bolondres egiten dugun lana da, familiaren tradizioarekin jarraitzea da gure asmoa.

Zein urtetan eraiki zen? XIX. mendearen bukaeran eraiki zen San Gregorioren omenez.

Zer iruditu zaizue Ibaialde ikastolako ikasleen lana? Oso lan ederra egin duzue. Ziur gaude lan asko egin duzuela eta esfortzu handia eskatu dizuela.

Zer da gure lanetik gehien gustatu zaizuen? Zuen lanari esker jendeak herriko usadioen informazio gehiago izango duela.


Interesagarria den beste zerbait nahiko zenigukete aipatu? Asko gustatu zaigu QR-ak nola gelditu diren. Gure agurrik beroena jaso ezazue. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein da gure egitasmoaren helburua?
 2. Zein urtetan eraiki zen San Miguel eliza?
 3. Noiztik ari dira Morente ahizpak San Gregorio ermita zaintzen?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1 eta 2): Nahia Hualde (Baztan Ikastola), Eneko Santa-maria (Ibaialde Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Oier Arnedo (Argia Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Felix Oraien (Amaiur Ikastola) eta Gareseko Iker Arregi eta Nora Artazkoz.



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organi-
koan xedatzen dena betez, zure datu
pertsonalak ZOZKETA fitxategian sar-
tuta daudela eta horren helburua era-
kundeak antolatutako zozketak kudea-
tzea dela jakinarazten dizugu. Fitxate-
gia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.